

BIZTANLERIAREN ETA ETXEBIZITZEN ERROLDA. BIZTANLERIAREN EGITURA. 2024/01/01


Euskal AEko biztanleria 11.262 pertsonatan hazi da 2024an, eta pandemian izandako galera berdindu da

Batez besteko adina 45,9 urte da 2024an, duela 20 urte baino ia 4 urte gehiago

Eustaten datuen arabera, 2024ko urtarrilaren 1ean Euskal AEn 2.208.007 biztanle zeuden, hau da, 2023an baino 11.262 gehiago. Igoera hori 2023ko urtarrilaren 1ean izandakoari gehitu behar zaio, 10.228 egoiliarrekoa izan baitzen; beraz, pandemiaren bi urteetan izandako biztanleria-galera aise berdindu da, 2021ean eta 2022an 13.194 pertsona gutxiago izan baitziren. Hazkunde hori ia 21.000 pertsona gehiagoko migrazio-saldoak eragin du; izan ere, saldo begetatiboa – jaiotzak ken heriotzak – ia 8.900 pertsona gutxiagokoa da.

Kopuru absolututan, biztanleria-hazkunderik handiena Bizkaian izan da, 2023an baino 6.018 egoiliar gehiagorekin; ondoren Gipuzkoa dator, 722.824 egoiliarrekin, aurreko urtean baino 2.949 pertsona gehiago; eta, azkenik, Araban hazkundera 2.295 biztanlekoa izan da eta 335.146ra iritsi da.

Biztanleen piramideak. 2004 eta 2024



Iturriak: Eustat. Biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda. Biztanleriaren egitura.

Aldi zabalago batean egindako analisiak emaitza ezberdina erakusten du. 2004tik 2024ra bitartean, Arabako biztanleria % 14 hazi da, hau da, 41.134 egoiliar gehiago daude. Gipuzkoan gehitu da gehien pertsona kopurua, 41.519, eta balio erlatiboetan % 6,1ekoa izan da. Bizkaiari dagokionez, aldi horretan 30.340 biztanle irabazi ditu, biztanleriaren % 2,7.

Euskal AEko hiriburuen artean, hirurek egin dute gora 2023tik 2024ra bitartean. Hazkunderik handiena Bilbon izan da, 1.924 biztanle gehiagorekin, ondoren Vitoria-Gasteiz, 1.874 biztanlerekin, eta azkenik Donostia, 251 pertsona gehiagorekin. 2004. urtera itzuliz gero, ikusiko dugu Bilboko biztanleria 673 pertsonatan soilik murriztu dela azken 20 urteetan (-%0,2), eta Donostiakoak hazkunde txiki bat izan du, 1.497 pertsonakoa (+%0,8). Vitoria-Gasteizko biztanleria % 14,1 hazi da bi hamarkada hauetan, 220.871 biztanletik 251.974 biztanlera.

Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako udalerriei dagokionez, nabarmentzekoa da azken urtean 166 udalerri berreskuratu dutela biztanleria, eta 76k galdu. Biztanleria gehien hazi duten udalerriak, hurrenkera horretan, Barakaldo (768 biztanle), Irun (558 biztanle), Sestao (411 biztanle) eta Arrasate (250 biztanle gehiago) dira. Termino absolutuetan jaitsiera handiena izan duen udalerria Hernani izan da, 197 biztanle galdu baititu; hurrengo Getxo (124 biztanleko galera), nahiz eta jaitsiera azken urteetakoa baino nabarmen txikiagoa izan (-%0,2). Samaniego, Arama, Ubide eta Añana dira ehuneko jaitsiera handiena izan duten udalerriak, lau kasuetan % 5etik gora. Azterketa horretan ez da Galdakao sartu, Usansoloren desanexioaren ondorioz (2023ko amaieran) 4.534 biztanle gutxiago baitaude.

2004tik 2024ra bitartean, Getxo, Portugalete, Basauri eta Sestao, Bilbo Handiko eskualdean, biztanle gehien galdu zituzten udalerriak izan ziren, 14.330 pertsona gutxiago guztira. Ondarroan ere, Bizkaiar, 1.000 biztanletik gorako jaitsierak izan ziren. Bestalde, Leioan eta Etxebarrin 4.000 biztanle baino gehiago izan ziren aldi horretan.

Eskualdeak kontuan hartuta, Bilbo Handia izan da, hain zuzen ere, azken urtean biztanleria-hazkunderik handiena izan duena, 4.480 biztanle gehiagorekin; ondoren, Arabako Lautada (1.957) eta Donostialdea (776 gehiago) daude. Gainerakoetan, 20 eskualdeetatik 1ek bakarrik galdu du biztanleria, baina 8 pertsona baino ez.

2004. urtetik aurrera, Arabako Lautadan izan da hazkunderik handiena, 35.419 pertsona gehiago; ondoren, Donostialdean (+15.454) eta Plentzia-Mungian (+12.326). 20 urte hauetan biztanleria galtzen duen eskualde bakarra dago: Markina-Ondarroa, 758 pertsona gutxiagorekin.

65 urte eta gehiagoko pertsonen proportzioak gora egiten jarraitzen du Euskal AEn

Euskal AEko biztanleriaren batez besteko adina 2024an 45,9 urte da, Espainia osoan baino 1,6 urte gehiago. 2004. urtearekin alderatuta, batez besteko adina 4 urte igo da. Bestalde, sexuen arteko aldea 3 urtekoa da; izan ere, gizonen batez besteko adina 44,3 urtekoa da eta emakumeena 47,3koa, adin nagusiko emakume gehiago daudelako. Adinaren batez bestekoak lurraldeen adin-egitura islatzen du: Arabak erkidegoko batez bestekoa baino ia urtebete gutxiago du (45 urte); Gipuzkoa batez besteko horretara hurbiltzen da, baina azpitik (45,5) eta Bizkaiak gainditu egiten du, 46,4 urtera iritsi arte.

2024an, Euskal AEn, 65 urte eta gehiagoko pertsonen proportzioa % 24koa da, aurreko urtean baino 0,5 puntu gehiago, eta Espainian baino 3,6 puntu gehiago (% 20,4). Soilik

3 autonomia-erkidegok gainditzen dute ehuneko hori: Asturiasko Printzerriak (% 28), Gaztela eta Leonek (% 26,9) eta Galiziak (% 26,6). Sexua kontuan hartuta, emakumeen artean 65 urte eta gehiagoko proportzioa % 26,5 da, eta gizonen artean, berriz, % 21,2.

Euskal AEko batez besteko ehunekoa gainditzen duten udalerrien kopurua 82 da, 170ek balio bera edo txikiagoa duten bitartean; lehenengoen artean Bilbo, Donostia, Barakaldo eta Getxo daude, non Euskal AEko biztanleria osoaren % 31,8 bizi den.

2004. urtean, 65 urtetik gorako biztanleak % 18,4 ziren, eta batez bestekoa baino ehuneko handiagoa zuten udalerriak 154 ziren. Gainera, 2004tik 2024ra bitartean, 76 udalerrian 65 urtetik gorako pertsonen proportzioak behera egin du, baina udalerri horietan biztanleria osoaren % 3,2 baino ez da bizi.

Euskal AEko biztanleria, lurralde-eremuen, adin-talde handien arabera. 2024/01/01

	Guztira	0 - 19		20 - 64		>= 65	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Guztira	2.208.007	391.302	17,7	1.287.750	58,3	528.955	24,0
Lurralde historikoak							
Araba/Álava	335.146	63.452	18,9	195.446	58,3	76.248	22,8
Bizkaia	1.150.037	194.874	16,9	674.664	58,7	280.499	24,4
Gipuzkoa	722.824	132.976	18,4	417.640	57,8	172.208	23,8
Hiriburuak							
Bilbao	344.408	53.426	15,5	204.424	59,4	86.558	25,1
Donostia / San Sebastian	182.892	29.982	16,4	104.860	57,3	48.050	26,3
Vitoria-Gasteiz	251.974	47.833	19,0	146.325	58,1	57.816	22,9
Eskualdeak							
Añana	6.367	1.004	15,8	3.901	61,3	1.462	23,0
Arabako Errioxa / Rioja Alavesa	11.777	2.316	19,7	6.976	59,2	2.485	21,1
Arabako Kantaurialdea / Cantábrica Alavesa	34.496	6.365	18,5	19.623	56,9	8.508	24,7
Arabako Lautada / Llanada Alavesa	269.971	51.537	19,1	157.420	58,3	61.014	22,6
Arabako Mendialdea / Montaña Alavesa	3.232	496	15,3	1.889	58,4	847	26,2
Arratia-Nerbioli / Arratia-Nervión	24.298	4.680	19,3	14.209	58,5	5.409	22,3
Bidasoa Behea / Bajo Bidasoa	77.854	13.959	17,9	45.155	58,0	18.740	24,1
Bilbo Handia / Gran Bilbao	860.793	140.856	16,4	504.768	58,6	215.169	25,0
Debagolena / Alto Deba	55.011	10.377	18,9	30.970	56,3	13.664	24,8
Debarrena / Bajo Deba	63.087	11.709	18,6	35.789	56,7	15.589	24,7
Donostialdea	331.118	57.063	17,2	192.783	58,2	81.272	24,5
Durangaldea / Duranguesado	99.785	18.750	18,8	58.687	58,8	22.348	22,4
Enkartzioak / Encartaciones	32.178	5.644	17,5	18.943	58,9	7.591	23,6
Gernika-Bermeo	46.616	8.319	17,8	26.714	57,3	11.583	24,8
Gorri	68.615	13.961	20,3	39.035	56,9	15.619	22,8
Gorbeialdea / Etribaciones. del Gorbea	9.303	1.734	18,6	5.637	60,6	1.932	20,8
Markina-Ondarroa	25.618	4.431	17,3	14.596	57,0	6.591	25,7
Plentzia-Mungia	60.749	12.194	20,1	36.747	60,5	11.808	19,4
Tolosaldea	49.869	10.193	20,4	28.771	57,7	10.905	21,9
Urola Kosta	77.270	15.714	20,3	45.137	58,4	16.419	21,2

Data 2024ko Urriaren 30a

Iturria: Eustat. Biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda. Biztanleriaren egitura

Biztanleen adinari dagokionez, aldeak daude Euskal AEko udalerrien artean, eta, zehazkiago, 65 urte eta gehiagoko pertsonen ehunekoari dagokionez: izan ere, Baliarrainek dauka ehuneko txikiena (%8,8) eta Haranak handiena (% 37,9). Gainerako udalerriak horien artean kokatzen dira.

Lehenaz gain, % 14tik beherako ehunekoa duten beste 6 udalerri daude: Arakaldo, Irura, Astigarraga, Iruña Oka, Orendain eta Dulantzi. Guztira, 16.898 biztanle dituzte 7 udalerriek. Bestalde, Haranaz gain, 6 dira % 30etik gorako ehunekoa duten udalerriak: Ea, Sukarrieta, Elantxobe, Ereño, Añana eta Lagran. Zazpi egoiliarren artean 2.440 daude.

Eskualdeetan, 65 urtetik gorako biztanleak % 25 baino gehiago dira Arabako Mendialdean (% 26,2) eta Markina-Ondarroan (% 25,7). Ehuneko txikiena duen eskualdea, berriz, Plentzia-Mungia da, % 19,4koa.

Adin nagusienei erreparatuz gero, ikus dezakegu 85 urte eta gehiagoko pertsonak 2004an % 1,9 izatetik 2024an % 4,1 izatera igaro direla, baina ehuneko hori oso modu desberdinean banatzen da gizonen eta emakumeen artean: Euskadiko gizonen % 2,7k 85 urte edo gehiago ditu, eta emakumeen artean, berriz, proportzio hori % 5,4ra igotzen da. 100 urte eta gehiagoko biztanlerian hazkunde-prozesua biziagoa izan da: 2004an adin horretako 262 pertsona izatetik 907 izatera igaro da hogeitun urte geroago, % 86,8 emakumeak izanik.

Euskal AEn 65 urte eta gehiagoko 1,8 pertsona daude 16 urtetik beherako bakoitzeko, eta Espainia osoko ratioa (1,4) gainditu egiten da. Hala ere, Asturiasko Printzerrian 2,6ko erlazioa dago, eta hortik urrun dago Euskal AE oraindik.

Eskualdeka, Arabako Mendialdea eta Bilbo Handia dira proportziorik handiena dutenak, 16 urtetik beherako bakoitzeko 65 urtetik gorako 2 pertsona edo gehiago baitaude; Arabako Errioxan, Plentzia-Mungian eta Urola-Kostan, berriz, 1,3 dira.

Udalerri-mailan, 91 udalerri dute batez bestekoaren balio bera edo handiagoa, eta muturreko kasuak daude: Sukarrieta, Lagran, Añana eta Harana, 4tik 1era bitarteko kopuruarekin. Baliarrainek, aldiz, 0 eta 15 urte bitarteko 3 gazte baino gehiago ditu 65 urte edo gehiagoko pertsona bakoitzeko; Irurak 1,8, Arakaldok 1,7 eta Orendainek 1,7, hurrenez hurren. Hala ere, gogoratu behar da oso biztanle gutxiko udalerriak direla. Oro har, 26 udalerrian gutxienez 16 urtetik beherako adingabe bat dago 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62